

**GALDAKAOKO UDALEKO  
ZUZENBIDE PUBLIKOKO ZERGA ETA  
DIRU SARREREN KUDEAKETA,  
DIRU BILKETA, IKUSKARITZA ETA  
ZEHAPEN PROZEDURAKO UDAL  
ORDENANTZA**

**ORDENANZA MUNICIPAL DE GESTIÓN,  
RECAUDACIÓN, INSPECCION Y  
PROCEDIMIENTO SANCIONADOR DE  
TRIBUTOS E INGRESOS DE DERECHO  
PUBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE  
GALDAKAO**

**I.- PRINTZIPIO OROKORRAK:**

**1. artikulua.- Ordenantzaren helburua:**

1. Ordenantza honen helburua da Galdakaoko Udalari dagozkion zuzenbide publikoko zerga eta diru-sarrerekin zerikusia duten kudeaketa, diru-bilketa, zehapena eta ikuskaritzako prozedurak arautzea.

**2. artikulua.- Lege-araubidea:**

Zuzenbide publikoko zergen eta gainerako diru-sarrerren kudeaketa, diru-bilketa, zehapena eta ikuskaritza arautuko ditu Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak, Toki-ogasunen Foru Arauan, zerga bakoitzaren Ordenantza Fiskaletan eta aurreikusitako espezialitateekin, eta Udal Ordenantza honek. Bertan aurreikusita ez dagoenetan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren garapenean emandako legezko xedapenak aplikatuko dira osagarri bezala.

**3. artikulua.- Aplikazio-eremua:**

1. Udal honek bere eskumenak beteko ditu, Ordenantza honek araututako gaiei dagokienean, Galdakaoko udalerrri osoan.

2. Udalerritik kanpo egin behar diren baina berari dagozkion Zuzenbide Publikoko diru-sarrerekin zerikusia duten jarduketak, ikuskaritza edo nahitaezko diru-bilketa arloan, Udal honek burutu ahal izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremu barruan. Gainerako ustezko kasuetan, ezarrita dauden edo ezar daitezkeen lankidetzak formulatu araberako egingo dira.

**4. artikulua.- Organo diru-biltzailea:**

1. Udal zuzenbide publikoko zerga-kredituen eta gainerako diru-sarrerren kudeaketa biltzailea udalak berak egingo du zuzenean.

**I.- PRINCIPIOS GENERALES:**

**Artículo 1.- Objeto de la Ordenanza:**

1. El objeto de esta Ordenanza es la regulación de los procedimientos de gestión, recaudación, sanción e inspección relacionados con los tributos y demás ingresos de derecho público, correspondientes al Ayuntamiento de Galdakao.

**Artículo 2.- Régimen legal:**

La gestión, recaudación, sanción e inspección de los tributos y demás ingresos de derecho público se regirá por la Norma Foral General Tributaria, con las especialidades previstas en la Norma Foral de Haciendas Locales, las Ordenanzas Fiscales de cada tributo y por la presente Ordenanza Municipal. En todo lo no previsto en ella, se aplicarán con carácter supletorio las disposiciones legales dictadas en desarrollo de la Norma Foral General Tributaria.

**Artículo 3.- Ámbito de aplicación:**

1. Este Ayuntamiento ejercerá sus competencias, en las materias reguladas por esta Ordenanza, en todo el término municipal de Galdakao.

2. Las actuaciones en materia de inspección o recaudación ejecutiva que hayan de efectuarse fuera del territorio del municipio en relación con los ingresos de Derecho Público propios de éste, podrán ser practicadas por este Ayuntamiento en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia. En los restantes supuestos, se realizarán de acuerdo con las fórmulas de colaboración establecidas o que pudieran establecerse.

**Artículo 4.- Órgano recaudador:**

1. La gestión recaudadora de los créditos tributarios y demás ingresos de derecho público municipal, se realizará directamente por el propio Ayuntamiento.

2. Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskaritza arloko jarduketa desberdinak burutzeko organo eskudunak ondokoak izango dira:

**a) Alkatearen eskumenak:**

- 1.- Kitapenak onetsi eta ezeztatzea.
- 2.- Berraztertzeko errekursoak ebaztea.
- 3.- Zor ez diren diru-sarrerak itzultzeko eskabideak ebaztea.
- 4.- Gerorapenari edo zatikapenari buruz ebaztea.
- 5.- Onura fiskalak aitortzeko eskabidea ebaztea.
- 6.- Onura fikalak aitortzea.
- 7.- Bermeen exekuzioari buruz ebaztea.
- 8.- Erakunde laguntzaile bezala baimena ematea.
- 9.- Finketan edo lokaletan sartzeko informazioa, baimena emateko eta kautelazko neurriak hartzeko eskea egitea.
- 10.- Ordenantza hau garatzeko Zirkularrak ematea.
- 11.- Beste organoei legalki egotzi ez zaizkien eginkizun guztiak betetzea.

**b) Diruzainaren eskumenak:**

- 1.- Kudeaketa biltzailea zuzentzea borondatezko eta betearazi beharreko epealdian.
- 2.- Konpentsazioa ebaztea ordaintzeko obligaziodunak eskatuta.
- 3.- Administrazioaren kabuzko konpentsazioa erabakitzea.
- 4.- Udal zorretako interesen errekerimenduak ematea.
- 5.- Premiamenduko probidentzia ematea.
- 6.- Betearazi beharreko prozedura eteteko eskabideak ebaztea.
- 7.- Bete beharreko epealdian berraztertzeko errekursoak ebaztea.
- 8.- Enbargatutako ondasuna besterentzeari buruz ebaztea.
- 9.- Hutseginen eta kreditu kobraezinak aitortzea.
- 10.- Zerga eta zergaz besteko zorren erantzukizunen deribazioak diktatzea.

**c) Diru-bilketako Teknikariaren eskumenak:**

- 1.- Premiamenduko probidentzia helaraztea.
- 2.- Enbargo-eginbideak ematea.
- 3.- Jabetza-erregistroari, enbargoaren aurreneurritzko idatzoharrak eskatzea.

2. Los órganos competentes para llevar a cabo las distintas actuaciones en materia de Gestión, Recaudación e Inspección serán:

**a) Competencias del Alcalde:**

- 1.- Aprobar y anular las liquidaciones.
- 2.- Resolver los recursos de reposición.
- 3.- Resolver las solicitudes de devolución de ingresos indebidos.
- 4.- Resolver sobre el aplazamiento o fraccionamiento.
- 5.- Resolver la solicitud de reconocimiento de beneficios fiscales.
- 6.- Reconocimiento de beneficios fiscales.
- 7.- Resolver sobre la ejecución de garantías.
- 8.- Autorización como entidad colaboradora.
- 9.- Requerimiento de información, autorización de la entrada en fincas o locales, adopción de medidas cautelares.
- 10.- Dictar las Circulares de desarrollo de esta Ordenanza.
- 11.- El ejercicio de todas las funciones no atribuidas legalmente a otros órganos.

**b) Competencias del Tesorero:**

- 1.- Dirigir la gestión recaudatoria en periodo voluntario y ejecutivo.
- 2.- Resolver la compensación a instancia del obligado al pago.
- 3.- Acordar la compensación de oficio.
- 4.- Dictar los requerimientos de intereses en las deudas municipales.
- 5.- Dictar la providencia de apremio.
- 6.- Resolver las solicitudes de suspensión del procedimiento ejecutivo.
- 7.- Resolver los recursos de reposición en período ejecutivo.
- 8.- Resolver sobre la enajenación de los bienes embargados.
- 9.- Declaración de fallidos y créditos incobrables.
- 10.- Dictar las derivaciones de responsabilidad de deudas tributarias y no tributarias.

**c) Competencias del Técnico de Recaudación:**

- 1.- Dar traslado de la providencia de apremio.
- 2.- Dictar las diligencias de embargo.
- 3.- Solicitar anotaciones preventivas de embargo al Registro de la Propiedad.

- 4.- Gerorapenez edo zatikapenez informatzea.
- 5.- Nahitaezko Diru-bilketan izandako zorren ziurtagiriak jaulkitzea.
- 6.- Diruzainak eskuordetzan emandako funtzioak betetzea.

#### **5. artikulua.- Kudeaketa:**

1. Galdakaoko Udalak onura fiskalak eman ditzake bere zergen arloetan, aurrekontuetan bere gain hartuz, dagozkion Foru Arauetan xedatutakoaren arabera.

#### **6. artikulua.- Errolda:**

1. Zergapeko egitateak jarraitutasuna duenean errolda egin behar izango da, interesdunen aitortpenak, Udala honek dituen datuak, hala nola ikuskapenak ikusita. Altak, bajak edo aldaketak, sortarazi dituen egitatea izan den ondoko 15 egun balioduneko epean jakinarazi beharko dira.

2. Alkatetzak onespena eman beharko die erroldari ekitaldi bakoitzean eta jendaurrean jarriko dira ikusgai 15 eguneko epean, dagokien zergadunek aztertu eta, hala behar denean, bidezko erreklamazioak egin ditzaten. Foru Arauek horretarako aurreikusten dutenari kalterik egin gabe, Berraztertze Errekurtsoa, erroldak jendaurreko erakustaldia amaitu ondoko egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean aurkeztu behar da.

3. Udalak erroldarekin batera, borondatezko epealdian diru-sarrera egiteko epea iragarriko du. Epe hori iraganda, osorik ordaindu ez balitz, epealdi betearazlea hasiko da.

4. Kobrantzako iragarkiak ondokoa izan behar du:
- a) Diru-sarrera egin behar den epea.
  - b) Baimena duten kobratzeko mota desberdinak.
  - c) Diru-sarrera egiteko lekuak, eguna eta orduak.
  - d) Diru-sarrera egiteko epea iraganda, burutuko gabe balego, zorrak premiamenduko prozeduraz eskatuko dira eta epealdi betearazleko gainordainak, berandutzako interesak eta, behar denean, sortarazitako kostuak sortuko dituzte.

- 4.- Informar sobre el aplazamiento o fraccionamiento.
- 5.- Emisión de certificados de deudas en la Recaudación Ejecutiva.
- 6.- Ejercer las funciones delegadas por el Tesorero.

#### **Artículo 5 Gestión:**

1. El Ayuntamiento de Galdakao podrá conceder beneficios fiscales en materia de sus propios tributos, asumiéndolos con cargo a sus propios presupuestos, de conformidad a lo dispuesto en las Normas Forales correspondientes.

#### **Artículo 6.- Padrón:**

1. Cuando el hecho imponible tenga carácter de continuidad dará lugar a la creación de un padrón, en vista de las declaraciones de los interesados, de los datos de que este Ayuntamiento tenga conocimiento, así como de las inspecciones. Las altas, bajas o modificaciones deberán ser notificadas en el plazo de 15 días hábiles siguientes al hecho que las produzca.

2. Los padrones se someterán cada ejercicio a la aprobación de la alcaldía y se expondrán al público por un plazo de 15 días al objeto de que los contribuyentes afectados puedan examinarlos y establecer, en su caso, las reclamaciones oportunas. Sin perjuicio de lo que las Normas Forales correspondientes prevean al efecto, el Recurso de Reposición se interpondrá dentro del plazo de un mes contado desde el día siguiente al de finalización del periodo de exposición pública de los correspondientes padrones.

3. El Ayuntamiento junto con el padrón, anunciará el plazo para el ingreso en periodo voluntario. Transcurrido dicho plazo sin que se haya procedido a la totalidad del pago se iniciará el periodo ejecutivo.

4. El anuncio de cobranza deberá contener:
- a) El plazo en que se ha de realizar el ingreso.
  - b) Las diferentes modalidades de cobro autorizadas.
  - c) Lugares, días y horas de ingreso.
  - d) La advertencia de que, transcurrido el plazo de ingreso, sin haberse efectuado el mismo, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y se devengarán los correspondientes recargos del periodo ejecutivo, intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.

- e) Helbideratutako errezibuak kobratuko diren data.
- f) Kobratzeko epealdi horretan banku-helbideraketek ondorioak izateko azken muga-eguna.

### **7. artikulua.- Diru-sarrera egiteko borondatezko epealdia:**

1. Izaera publikoko aldizkako diru-sarrerak kobratzeko borondatezko epealdia, hilabetea baino laburragoa izango da eta urtero horretarako emandako alkate-dekretu bidez zehaztuko da.

2. Foru Aldundiak eskuordetua du Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kobratzeko kudeaketa. Nolanahi ere, Foru Aldundiak berak aurreikusitako epea izango dute.

## **II.- ZORRAREN IRAUNGIPENA:**

### **ORDAINKETA:**

#### **8. artikulua.- Ordainketa egiteko legitimazioa:**

1. Ordainketa edozein obligaziodunek baita hirugarrenek ere egin dezakete, zorra iraungitzeko ondorio guztietan. Hala ere, horrek ez die hirugarren horiei Udalaren aurrean inongo eskubiderik egikaritzeko ahalmenik ematen.

2. Zorra ordaintzen duenak ordainketaren ziurtagiria jasotzeko eskubidea izango du.

#### **9. artikulua.- Ordaintzeko lekua eta bideak:**

##### **1.- Autokitapenak:**

Udalaren Diruzaintzan ordaindu behar da, eskudirutan edo dagokion banketxeak adostutako txeki izendun bidez.

2.- Aldizkako mugaeguna duten zerga-errezibuak eta jakinarazpen kolektiboak:

a) Borondatezko ordainketan, dagokion banketxean ordainduz, helbideratzeko agindua dutenentzat, edo Erakunde laguntzaileen bulegoetan errezibua aurkeztuz.

b) Epealdi betearazlean, Udal Diru-bilketako bulegoetan edo dagokion jakinarazpenean zehaztuko den diru-bilketako kontu mugatuan diru-sarrera eginez.

3. Zergen, prezio publikoen, hirigintzako baliabideen ebazpenen, zehapenen eta udal zuzenbide publikoko beste diru-sarreraren kitapenak:

e) La fecha en que se van a pasar al cobro los recibos domiciliados.

f) Fecha límite para que las domiciliaciones bancarias surtan efectos en dicho periodo de cobro.

### **Artículo 7.- El plazo de ingreso en periodo voluntario**

1. El plazo de cobro en periodo voluntario de los ingresos periódicos de carácter público no será inferior al mes natural y se concretará anualmente mediante decreto de la alcaldía dictado al efecto.

2. En el caso del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y del Impuesto sobre Actividades Económicas en el que la Diputación Foral tiene delegada la gestión de cobro, el plazo será el que venga previsto por la propia Diputación Foral.

## **II.- EXTINCIÓN DE LA DEUDA:**

### **PAGO:**

#### **Artículo 8.-Legitimación para efectuar el pago:**

1. El pago puede realizarse por cualquiera de los obligados y también por terceras personas con plenos efectos extintivos de la deuda, sin que ello faculte a los terceros para ejercer ningún derecho ante el Ayuntamiento.

2. El que pague una deuda tendrá derecho a justificante del pago realizado.

#### **Artículo 9.-Lugar y medios de pago:**

##### **1.- Las autoliquidaciones:**

El pago se realizará en la Tesorería del Ayuntamiento, en efectivo o mediante cheque nominativo y conformado por la Entidad bancaria correspondiente.

2.- Los recibos tributarios de vencimiento periódico y notificación colectiva:

a) En pago voluntario, con cargo en la Entidad bancaria correspondiente para aquellos que tengan orden de domiciliación o en las oficinas de las Entidades colaboradoras mediante la presentación del recibo.

b) En periodo ejecutivo, en las oficinas de Recaudación Municipal o mediante ingreso en la cuenta restringida de recaudación que se especificará en la correspondiente notificación.

3. Las liquidaciones de tributos, precios públicos, resoluciones de recursos urbanísticos, sanciones y otros ingresos de derecho público municipal:

a) Borondatezko ordainketan, Udalaren Diruzaintzan ordaindu behar da, eskudirutan edo dagokion banketxeak adostutako txeki izendun bidez edo Erakunde laguntzaileen bulegoetan jakinarazpena (kitapena, ebazpena,...) aurkeztuz.

b) Epealdi betearazlean, Udal Diru-bilketako bulegoetan edo dagokion jakinarazpenean zehaztuko den diru-bilketako kontu mugatuan diru-sarrera eginez.

#### **10. artikulua.-Banku-helbideratzea:**

Subjektu pasiboek zergak, prezio publikoak eta kontratuko betebeharrak edozein Erakunde Finantzarioan helbidera ditzakete ordaintzeko eta ondokoa izango dutekontuan:

1. Aurretik Udal Administrazioari eskatu behar zaio, dagokion "helbideratze-buletina" betez.

2. Aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboko zergak, bat, batzuk, edo denak helbidera daitezke.

3. Errezibuak kontuan zordunduko dira iragarkian edo kitapenean ezartzen den egunean. Zehaztuta ez balego, errezibuak borondatez ordaintzeko epea amaitzen den egunean zordunduko dira.

4. Errezibuak itzuliko balira eta borondatezko epealdi barruan ordaindu ezean, diru-bilketa betearazleari hasiera emango zaio.

5. Ordaintzeko helbideraketek baliozkotasuna izango dute denbora mugagabeen. Baina zergadunek edozein momentutan, espreski, ezeztu edo beste establezimendu batzutura lekualda ditzakete, Udal Administrazioari baliozko epe barruan jakinaraziz.

6. Udalak helbideratzea ezerezta dezake, errezibuak itzuliz gero edo helbideraketako kontuan saldorik egon ezean.

7. Udalak momentu orotan ezarriko du helbideratze-eskabideak onartzeko muga-eguna edo noiztik hasita ondorioak izango dituen epealdia.

8. Aparteko gorabeherarik izanez gero, Alkateak helbideratutako errezibuentzako borondatezko epealdian ordaintzeko epea luza dezake.

a) En pago voluntario, en la Tesorería del Ayuntamiento, en efectivo o mediante cheque nominativo y conformado por la Entidad bancaria correspondiente o en las oficinas de las Entidades colaboradoras mediante la presentación de la notificación (liquidación, resolución,...).

b) En periodo ejecutivo, en las oficinas de Recaudación Municipal o mediante ingreso en la cuenta restringida de recaudación que se especificará en la correspondiente notificación.

#### **Artículo 10.-Domiciliación Bancaria:**

Los sujetos pasivos podrán domiciliar el pago de sus tributos, precios públicos y obligaciones contractuales en cualquier Entidad Financiera y teniendo en cuenta:

1. Se solicitará previamente a la Administración Municipal, cumplimentando el correspondiente "boletín de domiciliación".

2. Podrá domiciliarse, uno o varios, o la totalidad de los tributos de vencimiento periódico y notificación colectiva.

3. Los recibos serán cargados en cuenta el día que se establezca en el anuncio o en la liquidación. A falta de determinación, los recibos serán cargados el día que finalice el plazo de pago voluntario.

4. En el caso de devolución de recibos, si este no es abonado dentro del periodo voluntario, se iniciará la recaudación ejecutiva.

5. Las domiciliaciones de pago tendrán validez por tiempo indefinido, pudiendo los contribuyentes en cualquier momento, de forma expresa, anularlas o trasladarlas a otros establecimientos, poniéndolo en conocimiento de la Administración Municipal dentro del plazo de validez.

6. El Ayuntamiento podrá revocar la domiciliación ante la devolución de recibos o por falta de saldo en la cuenta domiciliada.

7. El Ayuntamiento establecerá en cada momento la fecha límite para la admisión de solicitudes de domiciliación o el período a partir del cual surtirán efecto.

8. Por circunstancias extraordinarias el Alcalde podrá ampliar el plazo de pago en periodo voluntario para los recibos domiciliados

## **11. artikulua.- Ordaintzeko epeak borondatezko epealdian:**

Borondatezko epealdian zorrak ordaintzeko epea ondokoa izango da:

1. Autokitapenezat: Zerga bakoitzaren arauetan ezarritakoa.

2. Aldizkako mugaegunak eta jakinarazpen kolektiboko zergen errezibuek, Errolda bakoitzarentzat onetsitako epea izango dute, eta kobrantzako iragarkian adieraziko da.

3. Zerga, prezio publiko, hirigintzako errekurtsoen ebazpenak, zehapenak eta udal zuzenbide publikoko diru-sarreraren kitapenezat:

a) Hilabete bakoitzaren 1etik eta 15era bitartean jakinarazitakoak, hurrengo hilabetearen 15era arte.

b) Hilabete bakoitzaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazitakoak, hurrengo hilabetearen azken egunera arte.

Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, muga-eguna hurrengo egun baliiodunera arte aldatu dela ulertuko da.

## **GERORAPENA ETA ZATIKAPENA**

### **12. artikulua.- Gerorapena eta Zatikapena:**

1. Obligaziodunak aurretik eskabidea egin ondoren, Alkateak zorrak ordaintzea geroratu edo zatika ditzake, diskrezionalki begiraturutako egoera ekonomiko-finantzarioak, aldi baterako ordaintzea galarazten duenean.

2. Eskabideak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Diru-bilketako Arautegi Orokorrean ezarritako edukia izango du.

3. Gerorapena edo zatikapena bai borondatezko epealdian bai epealdi betearazlean emakidatu ahal izango dira. Inoiz ere ez da izapidatuko obligaziodunak epealdi betearazlean dituen zor guztiak hartzen ez baditu eta, horiek ez geroraturik ez bertan behera utzirik ez badaude.

4. Gerorapenek eta Zatikapenek, bai borondatezko epealdian bai betearazlean, ondoko irizpide orokorrak izango dituzte:

## **Artículo 11.-Plazos de pago en periodo voluntario:**

El plazo de pago para las deudas en periodo voluntario será el siguiente:

1. Para las autoliquidaciones: el establecido en las normas de cada tributo.

2. Para los recibos tributarios de vencimiento periódico y notificación colectiva el plazo será el aprobado para cada Padrón, que se indicará en el anuncio de cobranza.

3. Para las liquidaciones de tributos, precios públicos, resoluciones de recursos urbanísticos, sanciones y otros ingresos de derecho público municipal será:

a) Las notificadas entre los días 1 y 15 de cada mes, hasta el 15 del mes siguiente.

b) Las notificadas entre los días 16 y último de cada mes, hasta el último día del mes siguiente.

Si el último día de plazo fuera sábado o festivo, se entenderá trasladado el vencimiento al primer día hábil posterior.

## **APLAZAMIENTO Y FRACCIONAMIENTO**

### **Artículo 12.- Aplazamiento y Fraccionamiento:**

1. El Alcalde previa solicitud del obligado, podrá aplazar o fraccionar el pago de las deudas cuando la situación económico-financiera, discrecionalmente apreciada impida de forma transitoria efectuar el pago.

2. El contenido de la solicitud será el establecido en el Reglamento General de Recaudación de THB.

3. El aplazamiento o fraccionamiento podrán concederse tanto en periodo voluntario como en periodo ejecutivo. En ningún caso se tramitará si este no comprende, la totalidad de las deudas que el obligado mantenga en periodo ejecutivo y no se encuentren ni aplazadas ni suspendidas.

4. Los criterios generales de Aplazamiento y Fraccionamiento, tanto en periodo voluntario como en ejecutiva, serán los siguientes:

a. 600 eurotik beherako zorrentzat:

Gerorapenak:

- 100 eurorain:..... hilabete 1
- 101etik 300 eurora: ..... 2 hilabete
- 301etik 600 eurora: ..... 3 hilabete

Zatikapenak: ez dira emakidatzen.

b. 600 euro edo gehiagoko zorrentzat:

Gerorapenak:

- 3.000 euroraino: ..... 6 hilabete
- 3.001etik 12.000 eurora: ..... 12 hilabete
- 12.001 eurotik gorra: ..... 24 hilabete

Zatikapenak:

- 3.000 euroraino: ..... 2 hiruhilabete
- 3001etik 12.000 eurora : ..... 4 hiruhilabete
- 12.001 eurotik gorra ..... 8 hiruhilabete

5. Salbuespenetan, eta horretarako emandako ebazpenaren bidez, laugarren puntuan ezarritako zenbateko txikiagoko zorra edo epealdia baino denbora luzeago geroratzea edo zatikatzea emakidatuko da.

6. Orokorrean, zordunari ez zaio esijituko zorrak geroratu edo zatikatzeko bermeak ematea, ordaintzeke dagoen zenbateko osoa 6.000 eurotik gorakoa ez denean.

7. Geroratu edo zatikatutako ordainketa-kopuruek, behar denean, gainordain betearazlea kanpoan utzita, berandutzako interesa sortaraziko dute, hurrenez hurren, zerga-zorrak edo zergaz bestekoak direnaren arabera. Hala adierazita dago Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 26.3 artikuluetan eta indarrean dauden Xedapenen Testu Birbatuko 19. artikuluan.

8. Geroratzea edo zatikatzea ukatzen denean, borondatezko epealdian dirua sartzeko epea amaitzen denetik ebazpen ukatzailearen edo ordaindu den egunera arte, iragandako epealdiari dagokion berandutzako interesak kitatuko dira.

9. Geroratutako diru-kopurua sartu ezean, ordaintzeke dagoen zor osoa betearazte-bidetik esijitzea ekarriko du.

a. Para deudas inferiores a 600 euros:

Aplazamientos:

- Hasta 100 euros: ..... 1 mes
- De 101 a 300 euros: ..... 2 meses
- De 301 a 600 euros: ..... 3 meses

Fraccionamientos: no se conceden

b. Para deudas iguales o superiores a 600 euros:

Aplazamientos:

- Hasta 3.000 euros: ..... 6 meses
- Desde 3.001 a 12.000 euros: ..... 12 meses
- A partir de los 12.001 euros: ..... 24 meses

Fraccionamientos:

- Hasta 3.000 euros: ..... 2 trimestres
- Desde 3001 a 12.000 euros: ..... 4 trimestres
- A partir de los 12.001 euros: ..... 8 trimestres

5. Sólo excepcionalmente y mediante resolución al efecto se concederá aplazamiento o fraccionamiento de la deuda de importe inferior o por periodo más largo que el establecido en el apartado cuarto.

6. Con carácter general no se exigirá al deudor la prestación de garantías para el aplazamiento o fraccionamiento de deudas cuando el importe total pendiente no supere los 6.000 euros.

7. Las cantidades cuyo pago se aplace o fraccione, excluido, en su caso, el recargo ejecutivo, devengarán el interés de demora a que se refieren los artículos 26.3 de la Norma Foral General Tributaria y 19 del Texto Refundido de las Disposiciones vigentes en materia presupuestaria, según se trate de deudas tributarias o no tributarias, respectivamente.

8. En los casos de denegación de aplazamiento o fraccionamiento se liquidarán intereses de demora por el período transcurrido desde la terminación del plazo de ingreso en período voluntario, hasta la fecha de la resolución denegatoria o del pago efectivo.

9. La falta de ingreso de la cantidad aplazada determinará la exigibilidad en vía ejecutiva de la totalidad de la deuda pendiente.

### **13. artikulua.- Berandutzako interesa:**

1. Berandutzako interesa obligaziodunei eta subjektu arau-hausleei esijituko zaie ondoko arrazoiengatik:

- a. Epe barruan ez ordaintzea.
- b. Diru-itzulketa bidegabe kobratzea.
- c. Zorren ordainketa Geroratu edo Zatikatzea.
- d. Zerga-araudian eta indarrean dauden aurrekontuko xedapenetan aurreikusitako gainerako kasuak.

2. Berandutzako interesa, diruari buruz legeak agintzen duena izango da, eskagarria den epealdian zehar, %25a gehituta, bestelakorik ezarri ezean. Zergaz bestekoak diren zorrei diruaren legezko interes-tasa ezarri beharko zaie.

### **HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK**

#### **14. artikulua.- Hutseginak:**

1. Hutseginak dira, zorra ordaindu ezin duten obligaziodunak, frogatutako kaudimengabeak izateagatik.

#### **15. artikulua.- Kreditu kobraezinak:**

1. Zordun nagusia eta arduradun solidario eta subsidiario guztiak, hutseginak jo ondoren, kreditua kobraezintzat joko da.

2. Prozeduraren legaltasunari zor zaion errespetua eta administrazioaren eraginkortasuna uztartzeko helburuarekin, kreditu kobraezinak proposatu aurretik, egiaztatu beharko diren baldintzak eta eskakizunak ezartzen dira.

Ziurtagiriak desberdinak izango dira zorraren zenbatekoaren eta ezaugarrien arabera, ondoko ustezkoak bereiziz:

#### **A. 50 euro baino gutxiagoko zorrari buruzko espedienteak:**

1. Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

2. Erakunde finantzarioetan fondoan embargo saialdia, emaitza negatiboz.

### **Artículo 13.-Interés de demora:**

1. El interés de demora se exigirá a los obligados y a los sujetos infractores como consecuencia de:

- a. Falta de pago dentro del plazo.
- b. El cobro de una devolución improcedente.
- c. Aplazamiento o Fraccionamiento del pago de deudas.
- d. El resto de casos previstos en la normativa tributaria y disposiciones presupuestarias vigentes.

2. El interés de demora será el legal del dinero, durante el periodo en que aquel resulte exigible, incrementado en un 25%, salvo que se establezca otro diferente. A las deudas de carácter no tributario, le será de aplicación el tipo de interés legal del dinero.

### **FALLIDOS Y CRÉDITOS INCOBRABLES**

#### **Artículo 14.-Fallidos:**

1. Son fallidos los obligados al pago cuya deuda no puede hacerse efectiva por insolvencia probada de los mismos.

#### **Artículo 15.-Créditos incobrables:**

1. Declarados fallidos el deudor principal y todos los responsables solidarios y subsidiarios se declara el crédito como incobrable.

2. Con la finalidad de conjugar el respeto al principio de legalidad procedimental con el de eficacia administrativa, se establecen los requisitos y condiciones que habrán de verificarse con carácter previo a la propuesta de créditos incobrables.

La documentación justificativa será diferente en función de los importes y características de la deuda, distinguiéndose los siguientes supuestos:

#### **A. Expedientes con importe de deuda no superior a 50 euros:**

1. Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.

2. Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.

B. 50 eta 500 euro bitarteko zorragatiko espedienteak:

1. Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
2. Erakunde finantzarioetan fondoan embargo saialdia emaitza negatiboz.
3. Soldaten eta pentsioen embargo-ahalegina, emaitza negatiboz.

C. 500 eta 3.000 euro bitarteko zorragatiko espedienteak:

1. Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
2. Erakunde finantzarioetan fondoan embargo saialdia, emaitza negatiboz.
3. Soldaten eta pentsioen embargo saialdia, emaitza negatiboz.
4. Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan, zordunaren izenean inskribaturiko ondasunik ez dagoela egiaztatzea.

D. 3.000 euro baino gehiagoko zorrari buruzko espedienteak:

1. Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
2. Erakunde finantzarioetan fondoan embargo saialdia, emaitza negatiboz.
3. Soldaten eta pentsioen embargo saialdia, emaitza negatiboz.
4. Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan, zordunaren izenean inskribaturiko ondasunik ez dagoela egiaztatzea.

B. Expediente por un importe de deuda de 50 a 500 euros:

1. Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
2. Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
3. Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.

C. Expediente por un importe de deuda de 500 a 3.000 euros:

1. Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
2. Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
3. Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.
4. Acreditar que no existe bienes inscritos a nombre del deudor, en el Registro de la Propiedad o cualquier otro registro público.

D. Expediente por un importe de deuda superior a 3.000 euros:

1. Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
2. Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
3. Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.
4. Acreditar que no existe bienes inscritos a nombre del deudor, en el Registro de la Propiedad o cualquier otro registro público.

5. Zorra azken urtean zehar bide betearazlean, kobratu ezinik, izan dela berresten duen txostena.

5. Informe confirmando haber mantenido deuda en Ejecutiva durante un año, sin posibilidad de cobro.

## **PRESKRIPTIONA ETA IRAUNGIPENA**

### **16. artikulua.- Printzipio orokorrak:**

1. Udal honek zerga-zorra zehazteko ahalak preskripzioa eta iraungipena du.

Preskripzioa eta iraungipena aldi berean doaz. Horregatik, euretako edozein gertatuz gero, ezin izango da administrazio-ahala egikaritu, dagokion kitapenaren bidez zerga-zorra zehazteko.

2. Kitatu eta autokitatutako zorrak ordaintzea esijitzeko Administrazioak duen ahalak, eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak, diru-sarrera bidegabeak itzultzea eta bermeen kostuaren errenboltsoa arauten dituen arauditik eratorritako diru-itzulketak lortzeak, preskripzioa dute.

3. Preskripzioak eta iraungipena zorra kentzen dute eta ofizioz aplikatzen dira, baita ordaindu den kasuetan ere.

### **17. artikulua.- Preskripzioa**

1. Aurreko artikuluko bat eta bi puntuetan aurreikusitako administrazioak ahalak egikaritzea lau urtera preskribitzen du.

2. Preskripzioa zenbatu, eten eta gainerako ondorioetarako, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzeko xedapenetan aurreikusitakoa ezarriko da.

### **18. artikulua.- Iraungipena**

1. Ordenantza honen 16. artikuluko lehenengo puntuan aurreikusitako administrazioak ahalmenaren egikaritzak sei urteren buruan iraungitzen du.

2. Iraungipena zenbatu, eten eta gainerako ondorioetarako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzeko xedapenetan aurreikusitakoa ezarriko da.

## **PRESCRIPCION Y CADUCIDAD**

### **Artículo 16.- Principios generales:**

1. La potestad de este Ayuntamiento para determinar la deuda tributaria es objeto de prescripción y caducidad.

La prescripción y la caducidad operarán simultáneamente, por lo que una vez se produzca cualquiera de ellas, no podrá llevarse a efecto el ejercicio de la potestad administrativa para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación.

2. La potestad administrativa de la Administración para exigir el pago de las deudas liquidadas y autoliquidadas y el derecho de los obligados a solicitar y obtener devoluciones derivadas de la normativa reguladora de los ingresos de derecho público, las devoluciones de ingresos indebidos y el reembolso del coste de las garantías son objeto de prescripción.

3. La prescripción y la caducidad extinguen la deuda y se aplican de oficio, incluso en los casos en que se haya pagado

### **Artículo 17.-Prescripción**

1. El ejercicio de la potestades administrativas previstas en los apartados uno y dos del artículo anterior prescriben a los cuatro años en el caso de deudas tributarias. Para otros ingresos de derecho público, se estará a la normativa correspondiente.

2. A los efectos del cómputo, interrupción y demás efectos de la prescripción se estará a lo previsto en la NFGT y sus disposiciones de desarrollo

### **Artículo 18.-Caducidad**

1. El ejercicio de la potestad administrativa prevista en el apartado uno del artículo 16 de esta ordenanza caduca a los seis años.

2. A los efectos del cómputo, suspensión y demás efectos de la caducidad, se estará a lo previsto en la NFGT y sus disposiciones de desarrollo

### **III.- PREMIAMENDUKO PROZEDURA**

#### **19. artikulua.- Premiamenduko Prozedura:**

1. Zuzenbide publikoko zerga-zorrak edo gainerako diru-sarrerak borondatezko epealdian ordaintzeko epea iraganda, oso-osorik ordainduta ez baleude, ordaintzeke dauden zorren epealdi betearazlea hasiko da.

2. Epealdi betearazlea hasiz gero, %5eko gainordaina eta berandutzako interesak zehaztea ekarriko luke, salbuetsita premiamenduko probidentzia diktatu denetik eta zorra ordaintzeko ematen den epea amaitu artean iragandako epealdian.

3. Premiamenduko prozeduran zorrak ordaintzeko epea ondokoa izango da:

a) Hilabete bakoitzaren 1etik 15era bitartean jakinarazitakoak, hurrengo hilaren 15era arte.

b) Hilabete bakoitzaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazitakoak, hurrengo hilaren azken egunera arte.

Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, muga-eguna hurrengo lehenengo egun baldiodunera aldatu dela joko da.

4. Ordaintzeko epea iragan ondoren, %20ko premiamenduko gainordaina, hala nola borondatezko epealdia amaitzen denetik sortarazitako kuotaren gaineko interesak esijituko dira.

### **IV.- BERRIKUSTEA ADMINISTRAZIO BIDETIK**

#### **20. artikulua.- Berraztertze errekurtsoa:**

1. Zuzenbide publikoko tokiko zergak eta gainerako diru-sarrerak aplikatu eta eraginkortasuna izateko egintzen aurkako berraztertze-errekurtsoa auzeratu arren, horrek ez du inpugnatutako egintza eta dagozkion legezko ondorioak egikaritzea eteten, kuoten diru-bilketa edo kitatutako eskubideak, interesak, gainordainak eta zehapenak barne. Zerga-zehapenak ezartzeko egintzak etengo dira errekurtsoa auzeratu den unean.

2. Hala ere, berraztertze-errekurtsoa denboran eta eran auzeratu bada, automatikoki eta bermeak auzeratu beharrik gabe etengo du inpugnatutako egintza egikaritzea, zerga-zorra borondatezko epealdian dagoenean edo premiamenduko probidentziaren aurkako berraztertze-errekurtsoa auzeratu bada. Era berean, egikaritzea etengo da, beti ere, bi kasuetan, ordaintzeko borondatezko epealdiaren amaieran ordaintzeke dagoen zorra 3.000,00 eurokoa edo gutxiagokoa baldin bada.

### **III.- PROCEDIMIENTO DE APREMIO**

#### **Artículo 19.-Procedimiento de Apremio:**

1. Trascurrido el plazo para el pago en periodo voluntario, de las deudas tributarias o demás ingresos de derecho público, sin que estas se efectúen en su totalidad, dará comienzo el periodo ejecutivo por las deudas pendientes.

2. El inicio del periodo ejecutivo supone un recargo del 5% y la determinación de intereses de demora, salvo por el periodo transcurrido desde que se dicta la providencia de apremio y la fecha en que finalice el plazo que se concede para hacer frente al pago de la deuda.

3. El plazo para el pago de las deudas en el procedimiento de apremio será:

a) Las notificadas entre los días 1 y 15 de cada mes, hasta el 15 del mes siguiente.

b) Las notificadas entre los días 16 y último de cada mes, hasta el último día del mes siguiente.

Si el último día de plazo fuera sábado o festivo, se entenderá trasladado el vencimiento al primer día hábil posterior.

4. Trascurrido el plazo de pago, se exigirá el recargo de apremio, que será del 20%, así como los intereses devengados desde la finalización del periodo voluntario, sobre la cuota.

### **IV.- REVISION EN VÍA ADMINISTRATIVA**

#### **Artículo 20.-Recurso de Reposición:**

1. La interposición del recurso de reposición contra los actos sobre aplicación y efectividad de los tributos locales y restantes ingresos de derecho público, no suspenderá la ejecución del acto impugnado, con las consecuencias legales consiguientes, incluidas la recaudación de cuotas o derechos liquidados, intereses, recargos y sanciones. Los actos de imposición de sanciones tributarias quedarán automáticamente suspendidos con la interposición del recurso.

2. No obstante, la interposición en tiempo y forma del recurso de reposición, suspenderá de forma automática y sin necesidad de aportar garantías, la ejecución del acto impugnado, cuando la deuda tributaria estuviere en período voluntario de pago o se hubiese interpuesto el recurso de reposición contra la providencia de apremio, y siempre que, en ambos casos, la cuantía de la deuda pendiente a fin de periodo voluntario de pago fuese igual o inferior a 3.000,00 euros.

3. Aurreko puntuan adierazitakoak baino zenbateko handiagoetarako, interesdunak errekurtsioa aurkezteko epe barruan, inpugnatutako egintzaren egikaritzea etetea eska dezake. Baina horretarako errekurtsogileak aukeratutako ondoko bemeekin batera aurkeztu beharko du:

- Dirua edo balio publikoak gordailutzea.
- Kreditu-erakundeek edo elkarren arteko berme-sozietateek edo kauzio-asegurua egiaztagiri bidez emandako izaera solidarioko abala edo fidantza.

4. Errekurtsioa ebazteko organo eskudunak prozedura berme prestaziorik gabe etetea erabakiko du, derrigorrezkoa denean, alegia ordenantza honetan automatikoki eteteko ezarritako muga gainditzen duelako, ondoko kasuetan:

- Akats aritmetikoa, materiala edo egitezkoa izan litekeela ikusten denean.
- Ebazteko organo eskudunaren iritziz, errekurtsogileak alegatu ondoren, prestazioa ezinezkoa zaiola justifikatzen duenean.

5. Erreklamazioaren edo errekurtsioaren ebazpenaren ondorioz inpugnatutako egintzatik eratorritako zenbatekoa osorik edo zati baten ordaindu behar denean, berandutzako interesak kitatuko dira, 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 219 artikulua 3) puntuan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

## **V.- IKUSKATZEKO PROZEDURA**

### **21. artikulua.- Zerga ikuskatzailetza:**

Zerga ikuskatzailetza garatuko da 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-zehapenen Arautegia eta gainerako xedapen osagarriak onesten dituen Foru Aldundiaren 99/2005ean ezarritakoaren arabera.

## **VI.-ZEHATZEKO ARAUBIDEA**

### **22. artikulua.- Zehatzeko Ahala:**

Zehatzeko prozedura garatuko da, Bizkaiko Lurraldeko Historikoaren 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-zehapenen Arautegia eta gainerako xedapen osagarriak onesten dituen Foru Aldundiaren 100/2005ean ezarritakoaren arabera.

3. Para cuantías superiores a las indicadas en el punto anterior, el interesado podrá solicitar, dentro del plazo para interponer el recurso, la suspensión de la ejecución del acto impugnado, a cuyo efecto será indispensable acompañar garantías a elección del recurrente, que son las siguientes:

- Deposito de dinero o valores públicos.
- Aval o fianza de carácter solidario prestado por entidades de crédito o sociedad de garantía recíproca o certificado de seguro de caución.

4. El órgano competente para resolver el recurso acordará la suspensión del procedimiento sin prestación de garantía alguna, cuando ésta resulte obligatoria por superar el límite establecido en esta ordenanza para la suspensión automática, en los siguientes casos:

- Cuando se aprecie que se ha podido incurrir en error aritmético, material o de hecho.
- Cuando el recurrente alegue y justifique, a criterio del órgano competente para resolver, la imposibilidad de prestarla.

5. Cuando deba ingresarse total o parcialmente el importe derivado del acto impugnado como consecuencia de la resolución de la reclamación o recurso, se liquidarán intereses de demora sin perjuicio de lo previsto en el apartado 3) del artículo 219 de la Norma Foral 2/2005 General Tributaria.

## **V.- PROCEDIMIENTO DE INSPECCIÓN**

### **Artículo 21.- Inspección Tributaria:**

La inspección tributaria se desarrollará de conformidad con lo establecido en la NF General Tributaria del THB 2/2005 y en el DF 99/ 2005 por el que se aprueba el Reglamento de Inspección Tributaria del THB y demás disposiciones complementarias.

## **VI.-REGIMEN SANCIONADOR**

### **Artículo 22.- Potestad Sancionadora:**

El procedimiento sancionador se desarrollará conforme a lo establecido en la NF General tributaria del THB 2/2005 y en el DF 100/2005 por el que se aprueba el Reglamento sancionador Tributario del THB y demás disposiciones complementarias.

## **VII.- AZKEN XEDAPENA:**

### **Bakarra: Indarrean sartzea:**

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean, eta ez du atzeraeragineko ondoriorik izango. Hala ere, zergei buruzko arau-hauste eta zehapenen eta gainordainen araubideak atzeraeragineko ondorioak izango ditu irmoak ez diren egintzei dagokienean, aplikazioa mesedegarriagoa denean.

## **EGINBIDEA**

Ordenantza 2006ko abuztuaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 2006ko abuztuaren 31n sartu zen indarrean.

## **VII.- DISPOSICIONES FINAL:**

### **Única: Entrada en vigor:**

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación el Boletín Oficial de Bizkaia, y no tendrá efectos retroactivos, no obstante lo anterior, el régimen de infracciones y sanciones tributarias y el de recargos, tendrá efectos retroactivos respecto de los actos que no sean firmes cuando su aplicación resulte más favorable.

## **DILIGENCIA**

La ordenanza fue publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia de fecha 30 de agosto de 2006 y entró en vigor el 31 de agosto de 2006.